


NUEVOS EXTRACTOS

DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA



Discursos pronunciados en el Acto de Ingreso de:
JERARDO ELORTZA EGAÑA

Suplemento 21-G del Boletín de la RSBAP

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
2013



Oñati. Apertura del acto



Luis M^a Mujika, Gonzalo Duo, Jerardo Elortza,
Juan Bautista Mendizabal, Mikel Biain, José Antonio Azpiazu,
Asun Urzainki

APERTURA DEL ACTO DE INGRESO DE
JERARDO ELORTZA Y JOSÉ ANTONIO AZPIAZU

Juan Bautista Mendizabal Juaristi.
Presidente de la Real Sociedad Bascongada
de los Amigos del País en Gipuzkoa

Egunon eta ongi etorri guztioi Oñatiko Unibertsitateko toki paregabe honetara. Gaurko eguna, benetan egun pozgarria da Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte honentzako. Jerardo Elortza oñatiarra eta Jose Antonio Azpiazu legazpiarra izatez baina Oñatin bizi dena, Adiskide Numerario egiten ditugulako.

Euskalerrriaren Adiskideen elkarte, ez da elkarte bat soilik. Bere historia eta ibilaldi luzea gure Euskal Herriaren nortasuna jorratzen egin dugun lanen bidelagun izan da hasiera hasieratik. 17 urteko mutil gaztea, Xabier Munibe, Peñafloredako kondea, hemen Oñatin ezkondu zen Maria Josefa Areizagarekin eta bere ametsei jarraituz, 17 urte geroago, 1764garren urtean Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte sortu zuen Azkoitian beste adiskide batzuekin batera. Bagoaz 250 urte betetzera. 2014ko ekainetik 2015eko ekainera luzatuko dira ospakizunak.

Altxor onena eta hoberena bertako kideen jakinduria eta jakin-mina izan da eta da. Bere indarrezko leloak “lan onari”, dena esaten du. Gaurtik aurrera gure bi lagun hauek, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen lana zabalduko dute Euskal Herriko inguru esanguratsu hauetan eta bestalde indar berria ekarriko diote elkarteari. Harro sentitzeko moduan gaude guztiok.

Hoy es un gran día para la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Se incorporan dos nuevos Amigos de Número. Dos Amigos, de una trayectoria muy importante en el estudio y difusión de la cultura de Euskal Herria. Jerardo y José Antonio, cumplen con creces los objetivos que se recogieron en la fundación de la Sociedad, allá por 1764, cuando Peñaflores apuntaba que ser Amigo del País implicaba un compromiso vital decisivo.

Nuestra historia ha sido así, la historia de un compromiso. Desde las famosas tertulias de los Caballeritos o de la presentación del Plan para la creación de una Sociedad en Gipuzkoa. Su culminación fue la fundación de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País, con la divisa “*Irurac bat*”. Y ella es la que traerá nuevos aires de la Ilustración europea, con la creación del Real Seminario de Bergara o incorporando verdaderas innovaciones en el campo económico y cultural. La Bascongada fue modelo para el resto de Sociedades económicas que se crearon no sólo en el Estado sino también en América. Pero sobre todo podemos afirmar también que fue la organización pionera en el proceso de la articulación política e institucional vasca.

El año que viene cumplimos 250 años de existencia, que celebraremos a lo largo de un año desde Junio 2014 hasta Junio 2015.

Berriro Eskerrik asko. Hitz hauek esan da hasiera ematen diot ekitaldi akademiko honi.

Oñatiko alkatea, Mikel Biain jauna degu gaur gurekin. Beneran eskertzen diogu etorri izana eta orain hitza ematen diogu.

PALABRAS DE RECEPCIÓN

Gonzalo Duo Benito

Ante todo, deseo expresar mi más sincero agradecimiento a los Amigos responsables del protocolo de este acto por permitirme dirigir unas palabras de acogida al nuevo Amigo Jerardo Elortza, que hago extensivas a nuestro común Amigo José Antonio Azpiazu.

Mi intervención solo se justifica por el noble sentimiento de la Amistad, objetivo fraternal de la Bascongada para todos los vascos. Jerardo Elortza es mi amigo más apreciado durante mi vida, junto con su esposa Tere, Teresa Letamendi “que nos acompaña desde el cielo de Aitzgorri”. La felicidad de haber compartido la vida con ellos me ha transformado y mejorado como hombre y ciudadano. Otro tanto pueden afirmar cuantos les han tratado familiar y culturalmente. Eskerrik asko, Amigo Jerardo.

II

En una reciente tertulia que compartí en Insausti con varios Amigos de la Comisión de Gipuzkoa, el Amigo Presidente J.B. Mendizábal se planteaba si con ocasión del CCL aniversario de la fundación que comenzamos a celebrar, no sería conveniente explicar a nuestros compatriotas: ¿Qué es la Bascongada? ¿Quiénes nos llamamos Amigos del País? Y hacerlo de una manera directa y clara.

Los dos nuevos Amigos de Número cumplen perfectamente con los planteamientos y proyectos de futuro de los vascos

Ilustrados de la segunda mitad del siglo XVIII, que con un esfuerzo gigantesco realizaron Xabier de Munibe y sus Amigos. Traer a Vasconia la Revolución Ilustrada europea de la que somos herederos.

La Edad Contemporánea nació entonces con las lógicas de la Ilustración, que hoy se recuperan en el pensamiento occidental, pese a que enormes fuerzas en contrario, en el Arte, la Música, la Política, etc., sigan luchando contra la Razón y seduciendo con lenguajes retrógrados, inmovilistas, de gran tirón “popular”.

¿Qué es la Bascongada, o la Ilustración europea en Vasconia? Porque encontraremos sus huellas desde Zuberoa hasta las Encartaciones, como desde Nápoles hasta Upsala. Sin destacar los numerosos “antecedentes” de la Ilustración en el pensamiento de Montaigne, de Spinoza y Bayle, entre otras grandes personalidades filosóficas, Kant dio la respuesta que pervive:

Ilustración significa el abandono por parte del hombre de una minoría de edad cuyo responsable es él mismo. Esta minoría de edad significa la incapacidad para servirse de su entendimiento sin “necesitar la guía de otro”. Uno mismo es el culpable (de las consecuencias)... cuando su causa es la falta de resolución y valor para servirse de su entendimiento sin la guía de algún otro. Sapere aude!

El lema de la Ilustración es ¡Ten valor para servirte de tu propio entendimiento! Un principio que rompía con dogmas y metafísicas, que abría el uso de la Razón y la experiencia práctica como formas de estudio, reflexión e investigación, de soluciones ajustadas a la realidad.

La Filosofía de la Ilustración ha elevado la trágica condición humana a la mayor felicidad posible en nuestras vidas. Se comprende que el primer objetivo de la Ilustración fuera y siga siendo desterrar el ocio y fomentar los estudios científicos y de humanidades. En la época, la tarea quería despertar a unos centenares de nobles ociosos. En la actualidad seríamos muchísimos más, entre vascos jubilados y “en paro”.

¿Quiénes nos llamamos Amigos del País? Es un nombre generoso, que hoy se diría “quienes trabajan por la cultura con rigor científico”. Es decir, Amigos con generosas vocaciones de estudio, aplicadas al mejor conocimiento de lo que llamaban “Patria”, el País donde habían nacido. Los “Amigos del País” son los “Amigos del Pueblo”.

La suprema categoría de la Amistad ha sido expresada por muchos hombres extraordinarios. Destacamos las de nuestro pariente aquitano Michel de Montaigne :

Nuestra amistad no necesitaba de nada exterior, no se relacionaba sino consigo misma, no tenía en cuenta tal o cual o consideración ajena ... Nuestros espíritus se entendían, y nunca nos ocultamos nada ni separamos lo propio de uno y lo propio del otro.

El valor de las amistades personales se va a extender a toda la sociedad, que la Ilustración llamará Humanidad. Los ilustrados son los Amigos de la Humanidad. Xabier de Munibe y sus Amigos fundaron, una sociedad de Amigos, cuando ser Amigo del País, de la Patria Bascongada, decían, significaba “ser Amigo de la Humanidad entera”:

Los criterios que mueven la Ilustración son intelectuales, universales. Los beneficios de los esfuerzos de los Amigos se ofrecen a todo el pueblo vasco, los españoles y americanos, a toda la Humanidad.

Miro hacia mi Amigo Jerardo Elortza y se hacen realidad estas premisas. La proyección más generosa de su “patriotismo”, se ha aplicado a Oñati, a Gipuzkoa y a Vasconia. El trabajo resultante de su prodigiosa inteligencia y laboriosidad incansable lo ha ofrecido por entero a su pueblo, una magnífica plusvalía “sociocultural”. ¡Que debiera tener precio!

Es muy emocionante. Es un patriota puro en las categorías de la Ilustración, que perviven con su personalidad. “El sabio discreto” que la Literatura ha revalorado recientemente. Todos

aprovechamos de su sabiduría y generosidad, que nunca se extinguen.

El sabio discreto que ha realizado el milagro de modestia personal de reducir su c.v. a lo que podemos leer en el programa de mano. Nadie sospecharía que encubre cientos de artículos en euskara durante casi medio siglo, de perfecta categoría científica, que han elevado a una categoría extraordinaria la “cultura local actual”, el conocimiento acerca de si mismos de los ciudadanos de Oñati, Alto Deba y Gipuzkoa.

La estudiada planificación de sus obras me recuerdan a pautas de trabajo de Goethe sobre Frankfurt, en sus Memorias, a Schiller y Brecht en sus concepciones del teatro como escuela del pueblo. Así, las traducciones al euskara por Jerardo de obras de teatro social y de vanguardia y en las de su propia firma, ofreciendo a los oñatiarras interpretaciones fidedignas de su pasado histórico y musical.

III

Por último, quisiera destacar otro aspecto de evidente categoría ilustrada en la personalidad intelectual del Amigo Jerardo Elortza. Durante el proceso de revisión cultural en la universidad europea que siguió al otoño de 1968 en París, y sus secuelas en la Universidad de Deusto, pude comprender gracias a la amistad de Jerardo Elortza que había quedado atrás la interpretación exclusiva de la “cultura vasca como un monumento de sapientísimas investigaciones”, grandes esfuerzos de resultados intelectualmente estáticos, diríamos “museísticos”.

Era el momento de interpretar no una y dogmática “cultura vasca”, “euskalduna fededuna”, sino múltiples “culturas de los vascos”, según sus diferentes mentalidades. Aspectos principalmente dinámicos, integrados en la evolución sociocultural de Europa.

¡Sapere aude!

Estábamos pasando del mundo entrañable, tradicional que recreaba José de Arteche, a las interpretaciones progresistas, dinámicas, laicas, sociales, del no menos olvidado Antonio Valverde, “Ayalde”, quien adoraba también aquella Vasconia idílica (“Ibar Ixillean”), pero presentaba en San Sebastián a Oteiza, Aresti, Ibarrola, situaba al Grupo Gaur en la evolución cultural de la sociedad vasca, conferenciaba en un primer euskara libre y moderno, etc. Estos cambios los valoré en su época por los sabios comentarios de Jerardo Elortza. Leed su espléndida Introducción a “Arte y artistas vascos en los años 60”. No es una evocación nostálgica, sino el estudio más exacto y optimista posible.

Y termino.

Hace cuarenta años, el motor de la Bascongada era un ancianísimo muy activo, varias veces Presidente de la Comisión de Guipúzcoa y Director. Don Alvaro del Valle Lersundi, fue un verdadero ilustrado kantiano, gran lector de Voltaire en sus primeras ediciones. Se interesó por mis realizaciones culturales universitarias en euskara y me hizo el honor de designarme Amigo del País.

Por su talante abierto y liberal, me animé a presentarle un sencillo proyecto para rejuvenecer y poner al día la Bascongada, nombrando Amigos a universitarios/licenciados de habla vasca y con vocación por la investigación. Don Alvaro conoció aquí, en Oñati, a varios y decidió su ingreso progresivo en la Bascongada.

Pero (es el único pero de mi modesta intervención) el avance rapidísimo de la enfermedad que padecía se llevó el plan con su vida. A su muerte, la Sociedad se encerró en si misma y me alejé durante mucho tiempo.

Entre el CC aniversario de la Bascongada que se había celebrado poco antes y el CCL que comenzamos ahora, aquel proyecto aperturista por una remozada Bascongada se ha venido realizando. En la actualidad hay muchos jóvenes Amigos que forman

la élite intelectual de Vasconia... La Bascongada recibe hoy a dos sabios de Oñati y Legazpia. Recordemos las aportaciones del Amigo Iñaki Zumalde y de los jóvenes valores que eran Félix Ugarte y todos los que integraron el formidable equipo de trabajo del Inventario Histórico-Artístico del Valle de Oñati. Todos siguen manteniendo los principios culturales y generosos de la Ilustración y la Bascongada:

¡Sapere aude! ¡Tienen el valor de pensar por sí mismos!

**MANUEL UMEREZ GORIBARGOITIA
(1757-1818)**

Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País
Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte
Sarrera Ikasgaia

Hizlaria
JERARDO ELORTZA EGAÑA

Sancti Spiritus Unibertsitatea - Oñati
2013-10-12



Jerardo Elortza, Juan Bautista Mendizabal, Mikel Biain,
José Antonio Azpiazu, Asun Urzainki

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek eskaintzen didan aukera eder hau baliatu nahi nuke nire sarrera-hitzaldian oñatiar ezezagun baina garrantzitsu bati buruz berba egiteko. Urte askoan aritu naiz gure jaioterriko euskaraz idatzi zuen egile honen xehetasunen bila. Gaurkoa egun egokia dela iruditu zait herritarren aurrean eta unibertsitate zahar-dotore honetan, Iñaki Zumalde historialari txantxikuarra gogoan dugula, Manuel Umerez Goribargoitiari buruzko albisteak eta argibideak emateko.

1.- BIZITZA-ZERTZELADAK

Manuek Umerez Agirre 1757ko irailaren 11n jaio zen Oñatiko Goribar auzoko **Goribargoiti** baserrian. Gerora, amaren aldetik zegokion Agirre abizenaren ordeaz, behin eta berriz Goribargoitia erabili zuen bigarren deitura gisa, era horretan dokumentu ugari sinatuz. Sortetxeak, atari arkuduna duen eraikin karratu eta trinkoak, zutik dirau oraindik, gaur egun herriko saihasbidearen ertzean kokatua eta lantegiz inguratua.


Gurasoak maiorazko txikiak zirenez, ikasketak burutzeko modua izan zuen Umerezek. Jakina da bazela Oñatin, XVI. mendearen erdialdeaz geroztik, Rodrigo Mercado Zuazola apezpiku eta mezenasak jaso eragindako unibertsitate eder hau. Hamar bat minutura oinez Goribargoiti baserritik, hain zuzen ere. Ikasketxe honetako estudianteen artean agiri da Umerez, batxilergo klasikoa egiten. Aurretik, seguru asko, herriko plazan jesuitek zeukaten kolegioan latina eta beste oinarritzko ikasgai batzuk bereganatuko zituen. Eta jesulagunak 1767an Italiara egotziak



Goribargoiti baserria 1970 inguruan

izan zirenean, Ventura Larrauri irakasle famatuarekin amaituko zuen, beharbada, unibertsitatean sartzeko beharrezkoa zen prestakuntza.

Batxilergoa bukatu, apaiz-ikasketak osatu zituen herritik kanpora. Ez dakigu zein seminariotan. Abade gazte agertzen zaigu sasoi hartan hamasei apaizkide izateraino ailegatu zen Oñatiko San Migel parrokoa garrantzitsuan. Hango benefiziadua izan zen hainbat hamarkadatan, besteak beste, kabildoko idaz-




Manuel Umerezen sinadura

kari-karguan aritu zelarik luzaroan. Hori dela eta, bere sinadura sarritan ikus daiteke parrokiako liburuetan. Manuel Umerez hirurogei urte zituela zendu zen Oñatin 1818ko otsailaren 25ean eta Santa Katalinako hilerri berrian ehortzi zuten.

2.- TESTUINGURU HISTORIKOA

Garai gatazkatsuak bizitzea egokitu zitzaion Manuel Umezen belaunaldiari. Ilustrazioaren hasieratik zetozen ideiak, eztabaidak eta jarrerak hein batean Frantziako Iraultzan mami-tu eta lehertu ziren 1789tik aurrera, ondorio sakon eta larriekin maiz. Paris aldean hasitako oldarraren erasana, ordea, azkar hedatu zitzaigun Ipar Euskal Herrira lehenik, eta Hegoaldera geroxeago. Urruti samar ikusten zen “arrisku” hura bat-batean bertaraino heldu zen Konbentzio-gerrarekin (1793-1795). Gipuzkoa, Bizkaia eta beste lurralde batzuetatik zehar ia oztoporik gabe ibili ziren frantses tropak. Inguruko herrietara iritsi arren,



Frantziako Iraultzaren hastapenak

Oñatira ez ziren sartu, baina nabaritu egin zen, unibertsitatearen martxan batik bat. Handik laster, ez ziren ez Oñati eta ez Arantzazu libratu Napoleonen inbasio eta okupaziokoan (1808-1813).

Idea, ohitura eta eragin berri haiek astindu galanta eman zioten orduko euskal gizarteari. Ondorioz, herri- nahiz eliza-agintari gehienek nolabaiteko erabakiak hartzeko premia larria ikusi zuten, ordura arteko egoera ahalik eta gutxien alda zedin. Elizgizonen armarik indartsuena hitza zenez, kontraerasoari ekin zioten sermoi eta idazkien bitartez, gaztelaniaz zein euskaraz. Aurreko hiru hamarkadekin alderatuta, erruz ugaldu ziren Hego Euskal Herrian XIX. gizaldiaren hasierako urteetan euskaraz idatzitako lanak. Une hartan, Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere, hainbat liburu moldatu zen gure hizkuntzan, denek bere-hala kaleratzerik izan ez bazuten ere. Zenbait askoz beranduago inprimatu ziren eta batzuek argitaratzeke jarraitzen dute oraindik.

Besteren artean, Juan Antonio Mogel, Pedro Antonio Añibarro, Joakin Lizarraga, Jose Ignazio Gerriko, Juan Bautista Agirre, Pedro Astarloa, Jose Felix Amundarain, Felipe Agustin Otaegi, Bartolome Madariaga, Migel Mariano Plaza, Juan Mateo Zabala, edota Juan Jose eta Bizenta Mogekek berrekin zioten euskaraz idazteari. Eta testuinguru honetan kokatu behar dira, gure ustez, Manuel Umerez Goribargoitiaren euskarazko lanak ere: XVIII. mendean jaiotako idazleek XIX.aren lehen hamarkadetan ondutako obren artean, alegia.


3.- MANUEL UMEREZEN ESKUIZKRIBUAK

Goribargoiti baserriko semeak bi manuskrito mardul utzi zizkigun, 1805 inguruan Oñatiko euskararen atonduak. Arestian aipatu dugunez, San Migel parrokiako apaiz-benefiziadua zen ordurako eta 48 bat urteko gizon heldua. Berak adierazten digu konbentzio-gerrako une latzak hurretik ezagutu zituela, baina artean etortzeke zegoen Napoleonen okupazio-aldi luze eta la-

ria. Elizgizon kontserbadore baten ikuspuntu eta pentsamoldearen aldetik are latzagoak eta larriagoak.

Lehen liburukiak 440 orrialde dauzka, letra garbiz eta dotorez idatzia dago eta ondorengo izenburu luzea darama:

Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme.




Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme.

Eskuizkribuak berak eskaintzen dizkigun datuei jarraituz, lan hau 1805ean idatzi zela ziurtatu ahal izan dugu.

Bigarrenak 478 orrialde ditu, tankera bereko gaiak darabiltza eta antzeko titulu oparo baten jabe da:

Errectore baten instruccinuac ezconduric vizi dan Adisquide Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme.



Errectore baten instruccinuac ezconduric vizi dan Adisquide Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme.

Aurrekoaren zehaztasunez finkatzerik ez dagoen arren, beste lan hau ere, hainbat xehetasun kontuan izanik, XIX. mendearen hasieran gauzatu zela baieztatu dezakegu

Izenburuek garbi samar salatzen digutenez, erlijio-gaiak dira nagusi bi obra hauetan; sarritan errepikatzen dira eta tankera nahiz idazkera bertsuko pasarteak dituzte. Alabaina, dotrina-zatietan noizean behin tartekatzen dira sasoi hartako ohitura eta pentsamoldeei buruzko argibide interesgarriak eta bitxiak ere. Historia eta etnografiaren alorrean kontuan izateko ekarpen txoak daudela iruditzen zaigu.

Dena den, Manuel Umerezen idazlanek badute ukaezinezko balio erantsia: ordura arte ia erabili gabeko euskararen aldaera batean moldatuak izatea, Oñatiko berbaera berezian, alegia. Hori bai, idazkera dotore eta nahikoa jasoan. Harrigarria da, benetan, ia landu gabeko euskararen herri-mota batean izkiriatzeak dakartzan zailtasunak gainditzeko Umerezek erakusten duen trebezia aparta. Maila apalagoan baldin bada ere, Joanes Leizarra-garen ahalegin eskerga gogorarazten digu.

Beraz, euskal filologiaren esparruan ere dokumentu garrantzitsuak ditugu Oñatiko manuskrito zahar hauek. Aurrerago ikusiko da zenbait hizkuntzalari eta ikerlarik azaldu duten izkribu hauekiko interesa.

4.- LAN HAUEN GORABEHERAK

Urte askoan ahaztuta egon ondoren, 1930 inguruan **Jose Adrian Lizarralde** historialari frantziskotarrak berraurkitu zituen Manuel Umerezen obra hauek Oñatiko Olabarrieta auzoko Arrazola Azpikoan. Aspaldiko maiorazko etxea zen hau, eta orduantxe itxura-aldaketa sakon bat jasandakoa: euskal baserri klasikoaren eitea izatetik euskal tankerako txalet dotorea izatera pasatu berria zen, Damian Lizaur arkitekto oñatiarraren zuzendaritzapean.



Jose Adrian Lizarralde

J. A. Lizarraldek oñatieraz idatzitako liburuekiko arreta piztu zuen eta meritu hori aitortu behar zaio. Baina ez zen hizkuntzalaria historialaria baizik, eta, euskaraz jakin arren, gaztelaniaz ikertzen eta idazten zuen gehien bat. Edonola ere, bazen gerra aurreko urte haietan abade oñatiar jakintsu bat, jaioterriko historia eta hizkera aztertzea gustatzen zitzaiona: **Leonardo Zabaleta**. Hark eskuratu zituen eskuizkribuok, Oñatiko euskararen azterketa bat egiteko asmoa zuelako.



Leonardo Zabaleta

Denbora askoan, hogei bat urtean agian, egon ziren Umerezen bi lan horiek Zabaletaren ardurapean. Honen bidez beste batzuek ere eduki zuten Olabarrietako manuskrietoen berri. Bost euskaltzain osoren eskuetatik behintzat pasatu ziren: 1932an **Bonifazio Etxegaraik** ezagutu eta ikuskatu zituen Oñatin egin-dako egonaldi batean; II. Errepublikako sasoi nahasi haietan, 1934an, Arantzazuko komentuan babesa bilatu behar izan zuen **Raimundo Olabide** jesuita euskaltzainari ere erakutsi zizkiola diosku Zabaletak berak. Etxegaraik idazkioi buruzko aipamen interesgarria egin zuen, lehena beharbada, 1932ko irailaren 6ko *La Gaceta del Norte* Bilboko egunkarian; Olabidek ez ziela arreta handirik egingo pentsatzen dugu, Umerezen testuak idazle arabarraren hizkuntza-eredu garbizaletik oso urrun gelditzen baitziren.




Bonifazio Etxegarai

1936an eztanda egin zuen gerra zibilak, historia honetako protagonistei ez ezik, manuskrietoak ezagutarazteko ahaleginei ere mota desberdinetako ondorio gaziak ekarri zizkien. Beste

arlo askotan legez, hamalau-hamabost urtean eten sakona egon zen.

Dena den, 1950eko hamarkadaren hasieran eta bere bizitzako azkenaldian Leonardo Zabaletak beste batzuei ere helarazi zizkien Umerezen lanak: adibidez, **Manuel Lekuona** euskaltzain oiartzuarra izan zen horietako bat; bestalde, **Fausto Arozena** historialari eta artxibozain donostiarrak harreman estuak eduki zituen abade oñatiarrarekin: batetik, gerraostean unibertsitate zaharreko goiko geletan eratu zen Gipuzkoako protokoloen artxiboa zela bide, eta bestetik, geroxeago gure herrian kaleratu zen OÑATE kultura-aldizkariaren bitartez.

Arozena eta Zabaletaren arteko elkarlan horren emaitzarik onena, beharbada, honako hau izan zen: eskuizkribuetako bat **Koldo Mitxelena** euskaltzain eta irakasleak bere doktore-tesia bihurtuko zen *Fonética Histórica Vasca* ikerketa ospetsurako erabili ahal izan zuela denbora puska batean. *Errektore baten* deritzan lanaz baliatu zen, hain zuzen ere, eta **Ms. Oñate** bezala aipatzen du errenteriarrak 1961an argitaratutako tesi horretan.



Geroxeago, 1960ko hamarraldian, **Luis Villasante** euskaltzainak ere aztertu zituen lan biak, baina ez luzaroan, aste batzuk igaro ondoren, euren jabeak itzultzeko eskatu baitzion. Eskuz ohar batzuk hartzeko astia besterik ez zuen izan, artean ez baitzegoen fotokopiak ateratzeko modurik.

Umerezen izkribuak berreskuratu eta ezagutarazteko hurrengo saioa Oñatiko udal liburutegiko batzordeko kide batzuek bideratu zuten. **Felix Ugarte, Iñaki Zumalde, Jexux Etxezarreta** eta **Jerardo Elortzak**, Arrazola Azpikoan gordetzen ziren lanon jabearekin, **Luis Arrazola Garicano** jaunarekin, harremanetan jarri, eta berauen fotokopiak ateratzea lortu zen 1975 inguruan. Hartarako Reyes Korkostegi alkatearen laguntza ere izan zuten. Kopia horiek Oñatiko udal liburutegian, eta Arantzazuko komentuko nahiz Euskaltzaindiaren biblioteketan gorde ziren.

5.- EGILEAREN BILA

Eskuizkribuak eurak eta zenbait artxibo arakatuz, jakin ahal izan genuen azkenik lanok nork eta noiz eginak ziren. Argibide gehien eta erabakigarrienak eskuratzeko, ondorengo artxibategi hauek izan genituen garrantzitsuenak: Oñatiko San Migel parrokiakoa, Donostiako elizbarrutikoa, Gipuzkoako protoko-



Arrazola Azpikoa baserria XX. mendearen hasieran

loena, Arantzazuko komentukoa, Lazkaoko monasteriokoa eta Oñatiko udal artxiboa.

Egia esan, ez zen zeregin erraza gertatu, liburuetakoko baten hasieran azaltzen den sinadurak (Pedro Arrazola) okerreko bidetik eraman gintuelako luzaroan. Testuak Arrazola izeneko baserrian aurkitu zirelako eta beraietan abizen horretako norbait agertzen zelako, egilea Arrazolatarren bat izan zitekeela pentsarazi zigun. Baina ildo horri jarraituz etekinik ez genuela ateratzen ikusirik, Pedro Arrazola horren bigarren deiturari erreparatu genion. Pedroren ama Maria Ignazia Umerez Kortazar zen, Oñatiko Goribar auzoko Goribargoiti baserritik herri bereko Olabarrieta auzoko Arrazola Azpikoa baserrira 1797an ezkondua.

Umereztarraren hariari tiraka eta gorago esandako artxi-boetan aztertuz, egilea Manuel Umerez abadea, Goribargoitiko semea, zela finkatu ahal izan genuen. **Osaba baten** izeneko eskuzkribuak ere Umerez familiari buruzko datu ugari eskaintzen ditu zeharka. Hartara, izenburuan ageri diren osaba eta iloba ezkondu nekazaria identifikatu genituen, hots, Manuel Umerez Agirre [Goribargoitia] apaiz idazlea eta Manuel Umerez Kortazar




Goribargoiti baserria azken urteotan

zar, arestian aipatutako Maria Ignaziaren neba, eta 1805eko urtarrilaren 9an Maria Rita Villarekin ezkondua. Osaba zein iloba Goribargoitin jaiok ziren, eta azken hau baserriko oinordeko gaztea genuen.

Ilobaren ezkontza-agiriak beste xehetasun bat argitu zigun: **Osaba baten** manuskritoaren idazdata, alegia. Ezkonberriok haur baten esperoan dira, testuak idarokitzen duenez, eta lehen semea, Pablo Manuel, 1806ko urtarrilaren 24an jaiotzen zela konfiantza izanik, liburu hori behinik behin, **Osabarena**, 1805ean zehar idatzi zela ziurta daiteke. **Errektore**arena ere, beste arrazoi batzuk tarteko direla, garai bertsukoa dela esango genuke.

Orain arte azaldutakoak dakarren galdera honako hau da: nola iritsi ote ziren Manuel Umerez enskarazko lanak Goribar auzotik Olabarrieta auzora? Erantzuna familia bereko hiru elizgizonen bitartez etor dakiguke: **Manuel Umerez Goribargoitia** autorea 1818an hil zenean, **Juan Jose Umerez Kortazar** (1775-1835) bere iloba abadeak jasoko zituen idazlanok; eta azken honek Arrazola Azpikoa baserriko bere iloba **Pedro Arrazola Umerez** apaizari (1804-1840) utziko zizkion. Beraz, Umerez sendiko hiru osaba-iloba apaizek osatuko zuten, gure iritziz, euskarazko eskuizkribu oñatiar hauen transimisioko katea. Hirurak izan ziren XVIII. mendearen azkenalditik XIX.aren erdialdera San

A photograph of a handwritten signature in cursive script. The text reads "Arrazola Echea", "Olabarrieta", and "Onate" on the first line. Below this, there is a horizontal line, and then the signature "Pedro Arrazola" is written in a smaller, more decorative cursive style.

Pedro Arrazolaren sinadura
liburuetako batean

Migel parrokiako abade eta kargudunak, Pedro Arrazola gazterik zendu zen eta pentsatzekoa da manuskriptoak Olabarrietako jaiotetxean geratu zirela eta harrezkero Arrazola familiaren ardura-pean egon direla.

6.- AMAIERA GISA

Esan daiteke azken urteotan Manuel Umerezen eskuizkribuek arreta handi samarra piztu dutela hainbat ikertzaile eta euskalariren artean arrazoi desberdinengatik: filologikoak, soziologikoak, etnografikoak, eta abar. Lehenago aipatu diren batzuek, L. Villasantek eta K. Mitxelenak adibidez, interes berezia erakutsi zuten oñatieraz idatzitako lanok osorik argitara zitezen.


Harrezkero, unibertsitateko hainbat irakaslek eta euskaltzainek erabili izan dituzte euren lan eta ikerketetarako. Besteren artean, Belen Altuna, Henrike Knörr, Adolfo Arejita, Juan Martin Elexpuru eta Joseba Andoni Lakarrak.



B. Altunaren lan honetan maiz agertzen dira Umerezen testuak

Bestalde, batetik eta bestetik Manuel Umerezen izkribuak erdietsi ahal izateko eskaerak datozkigulako, berauek denon eskura egon daitezen, Oñatiko Benito Larrakoetxea udal euskaltegiko adiskideen eta Oñatiko udal artxiboko arduradunaren laguntzaz zera erabaki da: **Osaba baten** liburuaren transkripzio osoa udaleko web-orrian zintzilikatzea.

Hona helbidea: <http://www.oinati.eu> Oñatiko Udala Euskarra Argitalpenak.



M. Umerezen *Osaba baten* lanaren transkripzioa

7.- ESKERRAK

Zerrenda oso luzea osa daiteke hainbeste urteren buruan eskuizkribu hauek aldez edo moldez berreskuratzen eta ezagutarazten lagundu didaten pertsona eta erakundeekin. Denak ezin hona ekar. Artxibo garrantzitsuenak aipatu dira gorago eta ez ditut errepikatuko. Hala ere, beste batzuk zehazki gogoratu gura nituzke: Olabarrietako Arrazola familia; Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, Oñatiko Udala eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte; Felix Ugarte, Iñaki Zumalde, Reyes Korkostegi, Beatriz

Irizar, Garbiñe Garai, Juan Martin Elexpuru, Juantxo Madariaga, Agustin Goenaga, Ramon Martin Sukia eta Jose Ramon Arrazola Urkiaga; *Laixan* elkartea, *B. Larrakoetxea* euskaltegia eta *Kontzejupetik* aldizkaria; Gonzalo Duo eta Luis Mari Mujika; eta familia osoa, jakina, Tere Letamandi nire emaztea zena bereziki. Mila esker denoi!



Arrazola Azpikoa gaur egun